

Aurtengo sagar urtea

Hamar urte dira Gipuzkoa-ko EHNE sagar arazotan arduratzen dela. Aurtengoan behin baino gehiago esango genuke. Bizkaiko EHNE ez da gehiegi arduratu honetaz produkzio txikia dagoelako, baina Karrantza eta Lea-Artibaiko produkzioa ikusita eta une hauetan salmenta intermediarioen eskutan dagoela, datorren urterako zerbait egiteko asmoa dago; antolatu eta Gipuzkoara bidaltzeko eta beharbada negoziaketan parte hartzeko. Oraingoz, Gipuzkoan hartutako prezioa baliogarri zaie denei.

Sagarketari eta sagadoketarien arteko hartuemanak sendotzeko profesio-arteko elkarte bat (P.A.E.) sortzeko bilera batzuk egin dira.

Sagar-kanpainari buruz 4 bilera egin dira sagarzaileen eta sagardogileen artean. Ohitura dugun bezala joan zen urteari begiratu bat eman zitzaion eta puntu nagusienak hauek izan ziren: -almazenajea- ihazko sagardorik ez da sobratzen (oso kantide txikiak) eta hori sagardo gutxi egin zelako, batetik eta bestetik, aurten izan dugun udara beroak edari-kontsumo handiagoa ekarri duelako. -Prezioak- erabakitako prezioak (28 pta. Goierrian eta 30

pta. Beterrian) errespetatu ziren gorakada handirik gabe, kaso bereziak izan ezik. Kanpotik, Galiziatik, ekarritakoa 40 pta. ordaintzeraino iritsi ziren sagardogileek.

Ihazko urteari buruz produzitzaile eta trasformatzaileen artean ez zen eztabaidarik izan. Urte berriari buruz puntu hauek aztertu ziren: -produkzioa Sagardogileen esanetan, 1987an baino sagar gehiago dago. Baina zenbat sagarrondo dagoen ez dakigunez, zaila da numero zehatz bat ematea. Esandako urte horretan ea sagardogileek emandako numeroetan, 4 miloi kilo jaso ziren (3 miloi gremiokoek eta miloi bat taldekoek). Kontsumoa, sagardo-kontsumoa, 8 edo 9 miloikoa jotzen da. Aurten, bertako sagarrarekin %ko 45ra iritsiko omen da; beraz, numero horietan, sagar-kopurua 3,6 miloitik 4,05 miloi bitartean egongo litzake. -Prezioak-sagar asko izaten den urteetan bezala, aurtengoan ere oso negoziaketa estua izan da. Hiru bilera egin ondoren akuerdorik ez da lortu. Sagarzaleak, ihazko prezioari bizi-kostua erantsi eta 30 eta 32 ptz. eskatu zituzten eta, gutxienez, ihazkoari eustea, hau da, 28 eta 30 ptz.

Sagardogileek 24 pta. pezeta-

kin hasi ziren eta bigarren bilerraren bukaeran, 25 pta. eskeini zituzten.

Sagarzaleek akuerdo batera iristeko asmoz orain dela bi urte-tako bizi-kostuaren igoera aplikatuz 26,50 eskatu zituzten.

Prezioa peseta t'erdiko diferentzia horretatik mugitzen ez zenez, azkenik arbitrajea eskatzea erabaki zen, Gobernuak erabaki zezan. Horretarako, Gobernuko ordezkariak bilera batera deitu zigun denori, baina gremiokoak bakarrik azaldu ziren, Taldekoak kanpoan zirela adieraziz. Gure artean landu edo negoziatu beharrekoa zela eta erabakirik ez zenez eman ea nolabait aurrera egiteko sagarzaileek 2 erreal jaitsi eta 26an jarri zen, gremiokoek onartu zutelarik. Taldekoek ere bere erantzuna eman dute bere prezioa bateratuz, 26 pta denentzat. Sindikatutik ondo ikusten dugu bateratzea, baina oraindik interprofesionala ez dagoenez ezin da esan prezio minimo bat zein izan behar zen. Dena den akuerdoak errespetatu behar direlakoan gaude. Hori bai, prezio minimoak dira. Hortik aurrera bakoitzak negoziatu behar. Sagar guztia biltzea aseguratua dago eta, duela 2 urte EHNE-k jasotako listak bait dituzte. Dena den, norbaitek arazoren bat baleuka lasai deitu diezaguke, hemendik zuzenean jarriko bait ginateke harremanetan arduradunarekin.